


## DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren diru sarrerak eskumuturrekoen salmentetan oinarrituko lirateke. Eskumuturrekoa eta geolokalizatzailea elkartu eta paketatu ondoren, gure produktua salduko genuke.

Oraindik ez dakigu zehazki zeintzuk izango dira gure guztizko kostuak, baina gutxi gora behera eskumuturrekoa 50€-tan salduko genituzke, mozkinak irabazteko.



Hasteko, gure produktua Bizkaian

saltzea pentsatu dugu, eta salmentak eta mozkinak igo ahala, lehenengoz euskadiko beste lurraldeetara eta, geroago, Espainiako beste lurraldeetara hedatuko ginateke. Gainera, gure web orriari esker, publizitatea eta sponsor-ak lortu nahi ditugu. Horrela, laguntzak lortu ahal ditugu, eta horrela mozkinak handitzea.

Lortutako diruarekin teknologia berrietan inbertitzea da gure asmoa. Horrela, ez genuke bakarrik gure produktua hobetuko, baizik eta eskumuturrak pertsonalizatu ahalko genituzke. Azkenik, gure produktua banaka saltzeaz gain, pentsatu dugu segurtasunarekin-lortutako enpresa batzuei salduko dizkiegula gure eskumuturrekoak. Horien artean sartzen dira: DELTA SEGURIDAD S.A., Bilboko sozietate anonimo bat, segurtasuna eskaintzen duen enpresa bat; eta SABICO SEGURIDAD S.A., Getxokoa. Azken honek, pertsonalki jendearen nahiak asetzen ditu, baina haiekin elkartu eta gero, eta eztabaidatu eta gero, ideia hona iruditzen zaie gure produktua kontratatzea eta haien politika

errespetatuz, jendearen nahiak asetzea eta, gainera, gure produktua eskaintzen duen segurtasunarekin batera, proiektu polita egitea. Beraz, enpresa hauek izango lirateke beste diru iturri bat, gure eskumuturrekoak kantitate handietan salduko genituzkelako.